

...eta

Kitto!

840 zkio.
2013-III-15

Euskara elkarri emanez

BADATOR
18.korrika



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



Bizitza entzuteko

5 urte ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN
eskerrik asko

amplifon

Beitza
Zentro Optikua

R.P.S. 5508

J. Etxeberria, 13 943 700 230

...eta kitto!-ren itzulpen zerbitzua

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera, gaztelera-rik euskarara, eta ingelesa-rik euskarara.

- Urte askotako ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren beharretara EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

ASTEAN ESANAK

"Ezkerra askoz ere kalbinistagoa da, guztizko koherentzia eskatzen du, idealak aplikatzea: batzuetan zorrotzegia. Eskuinak, aldiz, ez du halako kritikarik egin behar, dagoenari eustearekin nahikoa du, moral bikoitzekoa baita"

(JULIO ANGUITA, POLITIKARIA)

"Inork ez du edari energetikoen kaloria ekarpena aipatzen, eta bonba hutsa da. Coca-Colak baino %40 gehiago dute, eta Coca-Colak asko du berez. Araudi berriko okerretako bat da ez duela elikagaiei buruz hitz egiten"

(JOSE MANUEL LOPEZ, BIOKIMIKARIA)

"Egunkaria betiko desagertzeri doa. Euskarazko kazetari on asko irakasle, tabernari edo komertzial bihurtuko dira, isilpean. Are okerrago dena: egongo da Bilduko zinegotzi moduan birziklatuko denik"

(DANIEL AGIRRE, KAZETARIA)

"Familia plangintzen politikaren eraginez, Asian emakume baino 163 milioi gizon daude. Hori dela-eta, ezkontzeko adinean dauden Txinako mutilen %10ak ez du bikoterik aurkituko eta Indian %20k ez dute andregairik topatuko"

(JORGE ENRIQUE MUJICA, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JAN-TXAKURRA.- Ezer berezarako prestatuta ez dagoen txakurra. Gaztelerazko 'perro de lujo'. Inoren lepotik dabilenari esaten zaio. "Oin artu daben txakurak ez du ezertarako balio, jan-txakurra da". "Jan-txakur lotsagarri bat zan ha gizona".

eskutitzak

- MENDIETAN HILDAKOAK OROITZEKO ELEMENTUAK -

Gipuzkoan zabaltzen ari da hildakoen oroimenez oroitarriak, lexiak edo xafak jartzeko ohitura. Lehen, elementu hauek leku esanguratsuetan ezartzen ziren, baina gaur egun edozein lekutan ezartzen dira eta kasu askotan lekuak berak duen xarma galtzen du.

Gaia oso sentikorra da, eta tentuz ibili beharreko pausoak eman beharko dira, baina arazoa zabaltzen ari dela uste dugu eta mugak jarri beharko genituzkeela. Gure ustez, poliki-poliki elementu hauek gure mendietatik desagertzea izan beharko luke helburua.

Helburu hori lortzeko bidean,

Gipuzkoako Mendizale Federazioetik irizpide hauek proposatzen ditugu:

1.- Hildako pertsonak oroitzeke ez dira gurutze, lexiak edo xafak erabiliko.

2.- Bertoko zuhaitzak erabiliko dira, beti ere, paisaian eragin kaltegarriarik sortu gabe. Noski, zuhaitza soilik jarriko da, inolako xafala adierazgarriarik gabe

3.- Natur Gune Babestuetan dauden elementuak kentzea proposatuko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, araututa bada-gu behintzat.

4.- Federazioa, herrialdeko mendi elkarten laguntzarekin,

elementu hauen inbentarioa egiten saiatuko da. Datu hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zerbitzuaren esku utziko ditu.

5.- Gipuzkoako Mendizale Federazioa nahiz mendi elkarteak irizpide hauek ezagutarazten saiatuko dira.

Kasu batzuetan ez dira mendizaleak izaten mendietan elementu hauek ezartzen dituztenak; beraz, arazoaren berri gizarte osoari emango diogu. Azkenik, argi utzi nahi dugu maite dugun pertsona bat oroitzea errespeta garria dela, baina beti ere ingurunea zainduz.

GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Aste Santua dela-eta, hilaren 29an ez da alerik izango. Horregatik, informaziorik bidaltzea nahi badiguzue edo zorion-tarteak aprobetxatu, datorren asteke alean kaleratzeko aukera izan dezakezue.



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTARTEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnak:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Ospitalaren aldeko siñadurak batzen

Eusko Jaurlaritzak onartutako aurrekontua ezagutzera emon eban martitzenian Iñigo Urkullu lehendakariak: azken 30 urtietako "latzena" dan aurrekontuak nabarmen egin dau behera (iazkuak baiño 1.132 millioi euro gitxiago, 9.316 millioi guztira). Murrizketak aurreikusitako proiektu eta inbersion asko bertan behera lagatzia eragin dau eta atzera bota dittuenen artian Eibarko ospitala eraikitzeke proiektua dago. Eibarko agintarixak gogo txarrez hartu eben erabagixa.

Albistia, gaiñera, herriko 14 alkartek osatutako plataformiak ospitala egittiareen premiñaz diharduan manifestua jendaurrian aurkeztu eban egunian bertan aillegau zan. Gauzak holan, plataformako kidiak ospitala egittiareen alde siñadurak jasotziari ekin detsa, horretarako mahaixak ipiñitta. Horrez gain, manifestuarekin bat egin daben Eibar Merkataritza Gune Irekiaren barruan daguzen 300dik gora denda eta tabernetan be siñatzeko aukeria izango dau nahi dabenak.



Urkullu eta Gatzagaetxebarria, martitzeneko aurkezpenian.



Geltoki Market jendetsua

Aurreko zapatuan Estaziño kalia ipiñittako Geltoki Market azokiak atzera be arrakasta haundixa euki eban, goiz osuan zihar bertariño jende mordua erakarritta. Zona 10 alkartekuak antolatuta, azokako saltzaillieri laguntzeko beste hainbat jarduera osagarri be egin zittuen, tartian Lambretta motorren konzentraziñua, futbolin txapelketia eta break dance erakustaldixa. Danen artian deigarrixena, baiña, balkoittik balkoira bertsotan jardun eben gaztiak eskindutako saiua izan zan.



Azurmendik ahotsak.com proiektuan be hartu eban parte.

Emilio Azurmendi "Sagarbitza" hil da

Haraifegun gabian hil zan Emilio Azurmendi "Sagarbitza". 1936xan Eibarren jaixotakua, Gorostako Sagarbitza edo Sagarbieta basarrixan emon eban bizitza osua. Eibarko basarritarren alkatia, ziñegotzixa eta Arrateko Kofradixako kidea izandakuari asko gustatzen jakozen etnografiarekin lotutako gaixak eta, horregaittik,

behin baiño gehixagotan hórretxen gaiñekuak kontau zittuan, berak esandakuak hainbat proiektutan jaso eta gordetzeko. Ahotsak.com izan zan proiektu hórretako bat eta Azurmendiren lekukotasunak idatziz zein bideuan grabauta bertan konsultatzeko moduan topauko dittuzue www.ahotsak.com webgunian sartuta



Azokiak hiru eguneko iraupena izango dau.

Abian azokia bixar itxiko dabe Armerixa eskolan

Eguen goizian Armerixa Eskolan zabalduetako "Abian Debarreneko I. Lanbide Heziketa Azokia" bixar itxiko dabe. Gure eskualdiak Lanbide Heziketa arluan dakan eskaintza zabala ezagutzera emoteko asmoz antolatutako azokan hi-

tzaldi, bisita eta bestelako jarduerak garatuko dittue atzo eta gaur. Bixar 10.00etatik 11.00etara gurasuendako coaching saiua eskinduko dabe, seme-alaberi erabagixak hartzeko orduan zelan lagundu leikien azaltzeko.

Orotariko landare azokia

Bixar III. Landare eta Lora azokia egongo da martxan Urkizuko parkian, 09.00etan hasi eta 14.00ak arte. Aurreko ediziñuetako bidari jarraituta, orotariko landariak ipiñiko dittue salgai azokan parte hartuko daben postuetan: Lurberri, Islaya, Aranburu Mintegiak, Irun Bonsai, M^a Karmen Alzibar, Biribai, Viveros El Montañés, Flores Blanca, Antonena basarria, labiti, Etxelore eta Urtinea lorategiak. Eurekin batera, Aldatze ikastetxeak



egongo dira, bidezko merkataritzako produktuekin. Eguardixan, bestalde, Natura Ikasten izeneko umiendako taillarra eskinduko dabe. Azokia Udalak, Debemenek eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak alkarlanian antolatu dabe.

Autobus geltokirako adostasun billa



EH Bilduak Eibarren autobus geltoki barrira kokatzeko tokixaren gaiñeko adostasuna eskatu detsa PSE-EE alderdixari. Bilduak estaziño barrirako tokirik aproposena Matsarixa dala pentsatzen dabe eta hala emon dabe aditzera behin baiño gehixogotan, azkenengoz aurtengo aurrekontuari aurkeztutako zuzenketako batian. Halanda be, ez euren proposamenak ez beste bide batzuetatik egindakuak oiñ arte mugimendurik ez dabela eragiñ ikusitta, kokalekurik egokixena modu adostu batian aukeratzeko maixa sortzeko eskaeria egin detse alkatiari.

autuan

DIPUTAZIÑOKO UDALEKUAK

Gipuzkoako Foru Aldundixak antolatzen dittuan udalekuetan izena aurrez emoteko epia zabalik dago 7-13 urte bittartekuendako. Hillaren 24ra arte eukiko dabe horretarako aukeria www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunian, 943-445980 telefonuan edo Portaleko 1. pisuan dagan Gazte Informaziño Buleguan.

FAUSTO MOTA

El Corte Inglés-ek hitzaldixa antolatu dau gaur arratsalderako: 18.30xetan hasitta, 2014ko Dakar rallyxan parte hartuko daben Fausto Mota motorzale gaztiak lasterketa famosua amaitzia lortu dau lehen be eta bere esperientzia kontauko dau gaurko saiuan.

IBI ZERGA

EAJ alderdikuak atzera be kejau dira erabilli bariko etxietako jabiak pagau biharreko IBI zergari %50 kargatzeko neurrixarekin. Indarrian dagan udal ordenantza PSE-EE eta Bilduren aldeko botuekin onartu zanian be kontra agertu ziran jeltzaliak.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

943 56 71 59 naturalbiodenda@gmail.com
naturalbiodenda.com

natural
BIO • DENDA
Bidebarrieta, 6

Osasuna jateko

asteko %100,84 datua

dago beteta Aixola presia, guztira 2 millioi eta 726 mila metro kubiko. Iaz sasoi honetan %91,38tan zeguan eta oin dala bi urte %76xan, apurazten hasteko moduko markan. Lehen Eibar %70ian Aixolatik eta beste %30ian Soraluzeko Sagar-Errekatik hornitzen bazan, gaur egun Urkullutik datorkigu ixa erabiltzen dogun ur guztia.

Etorkiñekin barriketan

Udaleko Inmigratio alorrak, Esperientzia Eskolakuekin alkarlanian, Berriketari programari ekingo detsa laster. Arduradunen berbetan, "hizkuntzak (erderia eta euskera) praktikatzen diran bittartian, jatorri ez-bardiñeko biztanle barrixen gizareratzia eta alkar ezagutza sustatzeko programia da. Modu ludikuan, programarekin bat egittera animatzen diraneri jatorriko herrialdiak ezagutzeko aukeria eskindu nahi detsagu eta, horrekin batera, etorri barrixereri Eibarko ohitturak, bitxikeriak eta gertakizun historikuak zuzen-zuzenian ezagutzeko bidia zabaldu". 15 bikote osatzeko asmua dake (bertako bat eta etorkin bat) eta programiak iraungo di-



Inmigratio Itunaren inguruko billera bat. LEIRE ITURBE

ttuan hamar astietan bikotiak astian behiñ alkartuko dira. Ekimena Aste Santua eta gero jarriko dabe martxan (sanjuanak arte). Informazio gehixagorako eta izena emoteko Udaleko Inmigratio (943708440 telefono zenbakia, inmigratio@eibar.net) edo Esperientzia Eskolara (695788936 telefono zenbakia, esperentziaeskola@adindu.com) jo leike.



Mugi txartela ezagutzera emoten

Aurreko astiaz gozotik martxan dagan Mugi Gipuzkoako garraio publikorako tarifa-sistema bateratua ezagutzera emoten dihardue egunotan herririk herri doian bulego ibiltarixan eta martitzenian Eibarren, Untzagan, egon ziran arduradunak, herritarrak gaixarekin lotuta dittuen galderak erantzuten. Lau orduko tartian, jubilauendako 200 txartel tramitau zittuen buleguan. Sistema barrixarekin hainbat arazo egon dira lehelengo egunetan. Eibarren lehelengotikan egon dan arazorik haundiña trena erabiltzen dabenak euki dabe: Eusko Tren sistemaren barruan egonda be, txartela erabiltzera jua ziranak bakarrik Hendaia eta Elgoibar bittarteko ibilbiderako balixo ebalatopau eben-eta. Horrek eragindako kejeri erantzunda, egun gixtitan arazua konponduta egongo dala aurreratu dabe. Lurraldebusetako txartelarekin be laster konponduta egotia espero daben beste arazo batzuk egon dira. Mugi sistemari buruzko informazioa www.mugipuzkoa.com webgunian eskuratu leike eta bezerueri informazioa emoteko telefonua 943 000 117 da.

Andren aldeko flashmob arrakastatsua

Barixakua Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zan eta Eibarren, beste herri askotan egindakuaren bidetik, horren harira programazio berezixa preparau eben Udalak eta Andretxeako andrazkuen alkartietakuak, beste hainbat talderen laguntasunarekin. Beste urte batzuetan antolatu ohi diran al-

karretaratzari eta udalaren adierazpenari laguntzen, Untzaga plazak jendez gaiñezka egittia lortu eban flashmoba gehittu zetsen aurtengo programaziuari. Nerea Lodosa Ipuru kiroldegiko dantza garaikide irakasliak gidatuta, ehundik gora lagunek jardun eben dantzan.

Ehundik gora lagun jardun zeben dantzan flashmob-ean.

LEIRE ITURBE





Sendabelarrei etekina ateratzen

EDOZEIN HERRIALDETAN OHITURA ZAHARRIK BADA, hori sendabelarrak erabiltzeko ohitura da. Mota guztietako gaitasunak sendatzeko, gure osasuna hobetzeko, kosmetika arloko produktuak egiteko... Sendabelarren erabilera eta onuren zerrenda amaitezina da eta, seguruenik, nekez aurkituko dugu gure mendi eta basoek eskaintzen digutena baino eskaparate handiagorik. Arazoa, baina, gehienetan horrekin konturatu ere ez garela egiten da. Begiratuta ere, gutariko gehienok parean daukaguna zer den ez dugulako jakiten.

Baina hori aldatzeko modua badago. Egunotan Portaleko sukaldean sendabelarrekin pomadak eta bestelakoak nola egin

ikasten dihardute hainbat lagunek, **Nekane Martiarena** irakasle dutela. **Sendabelarren Foroaren** eskutik antolatutako ikastaroan erabilera berriak aurkitu dizkiote Aloe Vera eta beste hainbati eta, gainera, irakaslearekin batera hurrengo saioko aukeratutakoak zehazten laga genituen ikasleak. Ikastaroa amaitzean dagoen arren, gaiarekin interesa dutenek hilerro, lehenengo astelehenean, Portalean Sendabelarren Foroak egiten duen bilera irekian parte hartzeko aukerak zabalik jarraituko duela gogoratu nahi dute arduradunek. Gainera, lantzean behin saioak antolatzen dituzte adituekin, mendi iblibideak sendabelarrak bilatzeko, gaiari eskaintako txokoa ere badute Juan San Martin liburutegian...

Eibarko Sendabelarren Foroa Espereintzia Eskolatik sortu zen. Izan ere, 55 urtetik gorakoentzat pentsatutako eskola berezi honetako ikasleek ikasturte bakarra eman ohi dute bertan eta, kurtsoaren amaieran, proiektu bana aurkezten dute. Hasierako asmoa proiektuak klarerako lanak besterik ez izatea zen, baina berehala konturatu ziren ikasleen proiektuetako askok (edo gehienak) interes handikoak zirela eta, gainera, martxan ipintzeko aukera eskaintzen zutela. Eta proiektu horiek abiarazteko sortu zen Ikasten, Debabarreneko ikasle ohien elkarte hain zuzen ere. Eta, ondoren, Ikasten elkartetik jaio zen Sendabelarren Foroa.

f

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
© 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

NO SOMOS UNO DE LOS HEREDEROS CERTIFICADOS
Fisioterapias y Complementos

Bodegas Roda-rekin MARIDAJE AFARIA

Martxoaren 21ean
21.30etan
Chalcha Jatetxean
Prezioa: 50 € + BEZa

EMAN IZENA
Chalchako barran
943 20 11 26
info@restaurantechalcha.com

ENOLOGOA: Carlos Díez / CHEF: Joseba Bergara

CHALCHA - nean

MENUA

APERITIBOA: Almeja fina (OLIOA: DAURO)

Bakailao xaflak brandada gainean, kanonigo entsaladarekin
(ARDOA: SELA, 2009)

Onddo krema ur irakinetan egindako arrautzarekin eta foie errea
(ARDOA: RODA, 2008)

Luismi entrekota txingarretan, piper-handi krema eta patata urdin txipak
(ARDOA: RODA I, 2006)

Gazta krema labean, izozkia eta irasagarrekin
(ARDOA: CORIMBO, 2010)

Pikatzeko: Te-pastak

chalcha RESTAURANTE JATETXEA

BODEGAS RODA
Haren. Rioja Alta. España



Asier Cuevas nagusi Beasainen

Eibarko Klub Deportiboko atleta Beasaingo III. Herri-Lasterketan nagusitu zen, distantziako 14 kilometroak egiteko 45 minutu eta 11 segundotan osatuta. Asier Cuevasi, gainera, omenaldia egin diote hilaren 23an jokatu den Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiaren kartelean, azpeitiarrek herriko semetzat ere baitute Goierri Garaian jardundako urteengatik. Horretarako, iaz Eunice Kirwak-i emakumezkoen mailan marka ezartzeko eskaini zion laguntza gogoratu eta lasterketan diharduten irudia sartu dute.

Urbat-Urko-tronik-ekoak gogor Euskal Herriko txapelketan

Asteburu betea izan zuten Urbat-Urko-tronik-eko igerilari-iek eta, horrela, infantil mailakoek Santurtzin jardun duten moduan Euskal herriko neguko txapelketan, Ander Romarate eta Markel Alberdi Espainiako txapelketan eta Toulouseko nazioartekoan izan dira. Santurtzikora gure herriko lau ordezkari aurkeztu ziren eta, maila bikaina erakustez gain, Ander Izagirre txapelduna izan zen 50, 100 eta 200 libreko probetan, Egoitz Blanco 2.a 400 estilotan, Unai Azpiazu 3.a 100 estiloko proban eta, azkenik, Ander Salaberriak, dominarik lortu ez arren, bere markak hobetu eta udako Euskal Herriko txapelketarako gutxiengoa lortu zuen.

Espainiako igeriketa egokituko txapelketak ez du Ander Romarate une



egokienean harrapatu, izandako ebakuntzatik errekupeazio fasean baitago oraindik. Hala ere, bere marka onenetara hurbildu zen Urbatekoa eta, 100 bizkarrean urrea eskuratzeaz gain, zilarrezko beste bat eta brontzezko hiru bereganatu zituen. Eta, Toulouseko nazioartekoan, Markel Alberdik berriro ere bikain lehiatu zuen. Ospe handiko igerilariarekin lehiatuta ere, jokatuako proba guztietan iritsi zen finalerara eta, horrez gain, 50 librekoa irabazi zuen, ikuski-zun aparta eskainiz.

Eroski Bidaiak Patronatuarekin bat

Ipurua kiroldagiko bazkide izateagatik, 2013ko urte osoan %5eko deskontua izango dute oporrak erreserbatzerakoan. Horretarako, nahikoa izango da NAN eta kiroldagiko bazkide karneta Errebal 6ko Eroskiko bulegoan aurkeztearekin. Akordioak urte osorako balio izango du.



Helmuga, ohikoa denez, Urkizun egongo da. LEIRE ITURBE

Abascal Memoriala etzi goizean

1. eta 2. urteko kadeteentzako probaren 34. edizioa jokatu da domeka goizean, 10.30etan hasita. Untzagatik Azitainera irteera neutralizatuan joan ondoren, 52 kilometroko lasterketari ekingo diote txirrin-

dulariek: hasteko Debaraino joango dira, han biraketa egin eta, Maltzagatik, Osintxura joko dute, handik Urkizu pasealekuan kokatu den helmugaren bila. Helmugaratzea 11.40ak ingururako dago iragarrita.



Koskorrek zail izango du titulua berritzea.

Garajes Garcia-k Koskor garaitu zuen

Ganixen gola garrantzi handikoa izan daiteke liga amaierarako, Garajes Garcia.com taldeari lidergoan jarraitzeko aukera eskaintzen baitio eta Koskor lau puntura urrutiratzen. Lidergoan Txokorekin berdinduta jarraitzen dute Garajes-ekoak, Txokok ere garaipena eskuratu baitzuen: hori bai, justu samar, 3-2 Alkidebari irabazita. Durango gerturatzen zaio Koskorri puntu bakarrera, Azkena Kaltoni 1-0 irabazi eta gero.

Liga irabazteko borrokan dihardutenen arteko beste norgehiagoka bat izango da bihar, goizeko 09.00etan Unbeko goiko zelaian. Aurreko asteburuan Garajes eta Koskor izan ziren nor baino nor; eta oraingoan Txokok eta Durangok izango dute euren artekoa: neurketa horrek ere asko izango du esateko.

Osoro eta Ziaran Durangoko podiumean

Eibar Triatloi Taldekoak bi probetan izan dira aurreko asteburuan. Zapatuan jokatuako Durangoko Duatloian distantzia motzeko Euskadiko txapelketa izan zen jokoa eta Ane Ziaran onena izan zen 23 urtetik azpikoaren artean eta Pello Osoro 3.a maila berean. Roberto Gartzia, Joseba Ortega, Andoni Mayo, Juanjo Romero eta Roberto Fernandezek ere proba amaitu zuten. Domekan, bestalde, Juanjo Romero 4.a izan zen Basauriko Duatloian, beterranoen 2. mailan. Asteburu honetan Oñatiko Duetloia jokatu da.



Pello Osorok indartsu hasi du duatloi denboraldia.



Ohiko eta ezohiko batzarrak Deporren hurrengo barixakuan

Hilaren 22an, hurrengo barixakuan, 20.00etan hasita (bigarren deialdia) Klub Deportiboko ohiko batzar nagusia egingo da, honako gai-ordenarekin: aurreko aktaren onarpena, presidentearen txostena, kontuen eta bazkideen gorabeherak, eta galdera eta eskariak. Batzarrean aztertu beharreko dokumentazioa klubaren iragarki oholean dago. Ezohiko ba-

tzar nagusian, bestalde, klubaren estatutu aldaketa aztertuko dute. Aldaketa onartzen bada, presidentea eta zuzendaritza batzordearen kideak hautatu beharko dira, kargu guztiak berri behar direlako. Aldaketa hori ez bada onartzen, hauteskunde arduraduna izendatu beharko da, hauteskunde egutegia onartu eta hauteskundeetara deitu.

Hierros Anetxeren garaipen garrantzitsua

Sailkapeneko bigarrena hartu zuten asteburuan eibartarrek eta, partidu bikaina jokatu, 17-13 irabazi zieten Oviedo Tradehikoei. Emaizta horrekin 5. postuan daude Hierros Anetxekoak, 40 punturekin (baina oraindik elurrarengatik atzeratutako Durangoren aurkako partidua jokatu barik).



Etorkizuna ziurtatuta

Hori erakutsi zuten Eibar Rugby Taldearen harrobikoak azken domekan: Ramon Telleriak zuzentzen dituen infantilek Zarautz/Beltzak taldearen kontra jokatu zuten Lasarten eta

Ion Arrizabalagak eta Markel Larruskainek zuzentzen dituzten alebinek eta benjaminen Arrasaten, joko maila polita erakutsiz eta aurterapuasua eginez.



Azkonabietara buzoia jartzera

Datorren asteko zapatuan, hilaren 23an, Eibarko mendi taldeko haur eta gurasoak Elgeta eta Soraluzekoekin bilduko dira Azkonabietara (724 metro) mendi ibilaldia egiteko: gailurrean dagoen buzoia zaharra kendu eta berria jartzeko aprobeztatuko dute eta salda

eta txorizoa banatuko. Informazioa gehiagorako, Klub Deportibora jo dezakezue, martitzen eta eguenetan.

Bestalde, aurreko asteburuan Iparraldera jo zuten Deporrek mendizaleek: 36 lagun izan ziren Makea-Urtsuian, eguraldi ederra lagun (argazkian).

berriak

TXIRRINDULARITZA

Borja Abasolo izan zen Debarrenako ordezkari onena Asteasun jokatuako "Aiztondo Klasika - Memorial Patxi Alkorta" proban. Klub Deportiboko taldeko txirrindularia 8. postuan helmugaratu zen. Asteburuan bitan banatuko da Eibarko taldea: Alcalá de Henaresen Espainiako txapelketarako baliagarria den Macario Sari Nagusia jokatu da domekan; Lizarran jokatu den proban, bestalde, taldeko gazteenak izango dira.

FOBALLA

Eibar KEK domekan Logroño-ko Las Gaunasen jokatu du multzoan dauden Errioxako hiriburuko bi taldeetako baten aurka: SD Logroñés. Partidua 17.00etan hasiko da eta Añibarrenen baja Arregik jarraituko du betetzen. Mailari eusteko borrokan diharduen Abadiak zuzentzen duen talde errioxarrak, bestalde, lau jokalarri garrantzitsuren falta izango du neurketa horretarako.

SASKIBALOA

Ruibal Alquiler de Vehículos-ek garaipen zaila eskuratu zuen azken jardunaldian Donosti Dolphins-en aurrean (59-55). Emaizta horrekin, probintziako 2. mailan diharduen Eibarko taldea 6. postuan dago, Oinarsoren kantxa bisitatu aurretik. 3. mailan jokatzen duen Katu Kalek, bestalde, 76-30 egurtu zuen Astigarraga La Salle eta sailkapeneko 7. postuan dago. Asteburu honetan CD Internacional Mons bisitatu du.



Eibarko buia waterpolo euskal selekzioan

Urbat-Urkitronik-eko Joseba Urkiak Euskadiko selekzioaren buietako bat izango da hilaren 22tik 24ra arte, Katalunia eta Madrilgo selekzio handien aurka Madrilen jokatu beharreko final autonomikoetan. Euskal waterpoloak bizi duen egoera gozoaren ikurra da eibartarra, batez ere defentsan egiten duen lanari esker. Domekan Orbean jokatu du euskal selekzioak Urbaten

aurka, Madrilera joan aurretiko azken partiduan.

Senior mailako Urbatek, bestalde, liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan bigarren postua ziurtatuta, aukera ematen dihardu gazteenei eta, horrela, Aritz Jaiio, Ekhi Sologaitua, Mikel Reicio eta Alex Sarasuak taldearen pisua hartu zuten euren gain Club Deportivo Bilbaoarekin 12-9 galdutako azken partiduan.



Pilota gaur eta domekan

Katedralak maila handiko pilota eskainiko du, bai gaur, bai domekan. Deba Arroko txapelketaren barruko norgehiagoka jokatuko da gaur, 19.30etan: Unamunzagak eta Larreategik (edo Agirrebeñak) osatutako bikoteak Aretxabaletako ordazkariei egingo die aurre, senior mailako lehian. Afizionatuen arloan, beste bi partidua garrantzitsu izango dituzte Deportiboko ordezkariak: Udaberri txapelketako finalerdietan, partidua bakarrera: 3. maila-

ko jubenetan, Velasco-Larrauri bikoteak Zumarragan bilatuko du finala; eta 2. mailako jubenetan, Zubizarreta-Agirresarobek Lasarte-Orian. **Profesionalak dagokienez**, domekan jaialdia izango da Asteleanean: partidua nagusian, Irujo-Zabaleta bikote liderrak Xala-Barriolaren aurka jokatu du. Aurretik, Idoaite-Peñagarikano eta Jaunarena-Pascual lehiatu du; eta, amaitzeko, Rico IV.a-Untoria eta Mendizabal III.a-Merinek.

Eibar Eskubaloiairen berdinketa liderraren kantxan

Somos Eibar Eskubaloiak 26na berdindu zuen Sorian jokatuako partiduan: emaitza ona bada ere, esku-eskuan izan zuten garaile bueltatzea, bi minuturen faltan bi goleko aldearekin irabazten zihozten eta baloia euren esku zutelako. Lehen zatia 12-10 amaitu zen etxekoan alde, baina bigarrenean eibartarren kontraeraso azkarrek liderraren joko sendoa apurtzeko gauza izan ziren. Sailkapenean hirugarrenak dira Somos Eibar-ekoak, liderrarengandik hiru puntura eta Zaragozarengandik bakarrera eta bihar Salamancako Ecubus hartuko dute Ipuruan.



Harrobia ere sendo

Euskal Ligan diharduten jubenetan eta kadete mailako taldeek azken fasea jokatzeko sailkatu dira matematikoki eta, infantiletan, nesken B taldeak eta mutilen Melfun taldeak euren multzoetako liderrak dira.

Eskolarteko ibilaldi neurtua Mutrikin



Gure herriko ikastetxeetako hainbat neska-mutil eta gurasok domekan egindako eskolarteko XXVI. ibilaldi neurtuan hartu zuten parte. Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatuta, bost irteera egin ziren probintzian, eskualdeko antolatuta; horrela, Debagoiena eta Debarrenakoak Mutrikin izan zuten hitzordua. 372 ume eta 235 heldu izan ziren Mutrikin, guztira 607 lagun; horietatik 123 Eibartik joandakoak (88 neska-mutil eta 35 guraso), La Salle Isasi, Mogel, San Andres, Amaña, Aldatze, Itzio, Urkizu eta Arrateko Andra Mari ikastetxetik.

Gimnastak domekan Gasteizen

Ipurua Klubak hitzordu berezia du domekan Gasteizen, Euskal Liga-ko lehen fasea jokatzeko baita. Infantiletan jokoan izango dira Espainiako txapelketara joango diren 20 gimnasten izenak: Elene Varela,



Nahia Arguiz, Teresa Miguel eta Malen Txurruka bi mazedekin jardungo dute euren ariketan. Seniorretan, bestalde, Jennifer Hernandez eta Miriam Blanco (pelotarekin) eta Irati Yarza eta Lorena Holgado uztaiarekin jardungo dute



ASIER SARASUA (Badiharduguko presidentea)

“Bildutako ahozko ondarea denon esku laga nahi izan dugu”

Hamar urte igaro dira, Badihardugu elkarteak bultzatuta, Euskal Herriko Ahotsak proiektuak lehen urratsak eman zituenetik. Eta beste bost ahotsak.com webgunea martxan ipini zenetik. Data bi horiek aitzakiatzat hartuta, orain arte eurekin kolaboratu eta burututako proiektuetan modu batean edo bestean parte hartu dutenen lana errekonozitu nahi izan dute eta eskerrak eman. Protagonismorik nahi ez bazuen ere, proiektuan hasieratik izan den Asier Sarasua Badiharduguko presidentearekin izan gara.

- Nondik nora erabaki duzue jaialdi hau egitea? Data berezirik dago atzean?

Batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu gure lanean lagundu diguten guztiei, modu batean edo bestean proiektuaren partaide izan direnei... Bost urte dira webgunea martxan jarri genuenetik eta hitzarmenetan adostutako fase batekin amaitu dugu. Orain arteko grabaketak helburu izateari laga eta lanketak eta hedapenak hartzen dute garrantzia handiagoa. Orain artekoan jende askok lagundu digu eta horrek merezi du gure esker ona.

- Badihardugutik hasitako proiektua asko hedatu da, ezta? Debagoiena eta Debarrenetik Euskal Herri oso hartzeraino...

245 herritan egin dugu lan, 4.000tik gora hizlarirekin eta 44.000tik gora pasarte bilduz. Horrez gain, 60 udalekin egin ditugu hitzarmenak eta baita beste hainbat euskara elkartekin. Elkarrizketatuak bilatzeko lanetan, 500 lagunetik gora lagundu dizkigute. Horko lanketaren ondoren, katalogioa eta ikerketak etorri dira eta, jarraian, gizarteratzearen ordua izan da.

- Horregatik zenioen fase berri batera eman duzuela urratsa? Zelan doa Ahotsak ikasgelan proiektua?

Hasi dugu eta urte eta erdian indartzeko asmoarekin. Orain artekoari errepasoa egin eta beste modu batean ikusteko aukera eskaintzen digu. Hor ikusi behar dugu zelan asmatu umeendako egokien prestatzeko, zelako zailtasunak dituen egokitze horrek... Gizarteratzeko, batez ere.

- Hasieran, baina, tokian tokiko euskara

errekuperatzeko ahalegina zen zuena. Denborarekin aldatzen joan da, ezta?

Badiharduguk herritarren hizkera jaso eta ausnartzeko ahaleginetan jarduteko sortu zen, Azkenean, proiektuak %50ean arlo linguistikoari (jaso, erakutsi eta erabilera eman) erantzun dio eta beste %50ean bestelako alderdiei: izan horiek sozio-historikoak, antropologikoak... Corpus horrek hainbat erabilera ahalbidetzen ditu.

- Ahotsak Iparralderaino hedatu da...

Debagoienan hasitakoak Debabarrenan, Urola Kostan, Bizkaian eta Arabako lau herri euskaldunetan izan zuen jarraipena. Gaur egun, Bizkaian eta Iparraldean dihardugu gehienbat, beti ere lehentasunen arabera.

- Eta, proiektu txikia izatetik, arlo horretako erreferente izatera pasatu zarete.

GAUR 18.30-etan hasita ELGETAKO ESPALOIAN

- Sarrera eta ongietorria, Mikel Laskurainen eskutik
- Ahotsak 10 urte (bideo erakusgarria)
- Ahotsak.com proiektua: Zergatik eta zertarako hau guztiau? Hainbat ikuskizun, Onintza Enbeita eta MP5 musika-taldearekin.
- Webgune berriaren eta “Komunitatea” atalaren aurkezpena.
- Laguntzaile guztiei eskertza.
- Sari-emanaldia.
- MP5 taldearen kontzertua (20.30etan)

Elkarte txikia zen gurea eta baliabide gutxikoa. Hamar urtetan sendotzen joan gara eta, bai, erreferentzia izatera heldu gara euskalkien bilketan. Batez ere, gure indarra dena Interneten egotean dago: bideoz grabatu dugu dena eta lizentzia libreakin zabaldu dugu, guztion eskura egon dadin. 2003an zehaztutakoa, erabilera errazte aldera, ondo bete dugu.

- Grabazio guzti horietatik zein sentsazio ateratu duzu? Berandu samar ote gabiltza?

Normala da pentsatzea “hamar urte lehenago egin izan bagenu”; beti dago sentsazio hori. Egia esateko, azken belaunaldi baten desagerpenaren lekuko izan gara. Gizartea guztiz aldatu da gerra izan zenetik hona: une historikoa izan zena urte batzuk barru baloratuko da.

- Zailtasun berezirik izan du lan horrek?

Normala denez, lekuko onak topatzea ez da lan erraza: ezkutuko lan gogorra egin behar izan da. Elkarrizketatzaileak lekukoa eroso sentitzea lortu behar du, kamara ahaztu dezala. Gehienetan, ordu eta erditen bueltako grabazioak izan dira, hortik aurrera nekea ere igartzen baita.

- Elebakar askorekin egin duzue topo?

Elebakar totalak gutxi izan dira, baina bai euskaraz sortu eta bizi izan direnak. Euskaraz eta, gainera, ahoz garatutakoak dira: sinatzetik aparte, gutxi idatzi dutenak.

- Epe laburrerako erronkarik?

Arlo horretan Euskal Herrian lanean dihardugun eragile guztiak elkartzea komeniko litzateke eta bide bateratua egi- tea, bildutakoak bere funtzioa bete dezan.

Badator Korrika 18: Eskurik esku EUSKERIA ALKARRI EMONDA

Atzo abiatu zan Korrikaren 18. ediziñua Andoaindik eta Euskal Herri osua ziharkatu eta gero, martxuaren 24an Baionan amaittuko da. Eibarrera datorren asteko eguaztenian, hillaren 20xan aillegauko da. Aurreikusittakua bete ezker, 18.00ak aldian Ermutik datorren korrikalarixaren eskutik jasoko dabe lekukua eibartarrak. Eibar barruko ibilbidia 6,300 kilometrokua izango da eta korrikalarixak ordubete inguru biharko dabe betetzeko. Lekukua eskurik esku pasauta, korrikalarixak Korrikaren ediziño honetako goiburuak diñuana, "Eman euskara elkarri" erralidade bihurtuko dabe.

Korrikaren Eibarko ibilbidia Unibertsitate Laboralaren parian hasiko da, Otaola hiribidetik segidu, Ipuaruara sartu, handik behera AEK euskaltegixan errebueltia beheruntz hartu eta Untzagariño bajatuko dira, Bidebarrietatik Julian Etxeberriara sartu, Toribio Etxebarria pasatu, udaletxe ostetik aurrera egiñ eta Txoko



Datorren eguaztenian, 18.00ak aldian, pasatuko da Korrika Eibartik. SILBIA HERNANDEZ

taberna ingururaino segiduta, handik Calbetón kalera sartuko dira. Bidebarrietatik behera, Karmen kaletik jarraituta Eibartik urten eta lekukua Sorluzekueri emongo detse.

Aurretik, baiña, girotzen juateko aukeria izango da: 15.15xetan Korrika Txikixa hasiko da Isasiko La Salle ikastetxe paretik eta ibilbidian korrikalarixak gehitzen jango jakoz hasierako taldia. Arratsaldeko lasterketan, betiko lez, ikastetxietako umiak izango dira protagonistak eta amaiera ekitaldixa Eibarko Bizikleta Plazan egingo dabe.

Bestalde, Korrika nagusixari ongi etorrixa egitteko 17.30-xetatik aurrera herriko kalietan musikia eskintzen jardungo dabe.

Mezua

Aurtengo Korrikaren goiburuak "Eman euskara elkarri" diño, "euskeriak euskal herritarrek alkarrekin bizitzeko hizkuntza izan bihar dalako, alkarri berba egitteko hizkuntza, alkar entzun eta ulertzekua.

Dakixanak ikasi nahi dabenari erakutsi, ulertzen dabenak berba egitten dabenari erabiltzeko aukeria emon, agintarixak herritar guztieri ikasteko bidiak erraztu... Danok daka-gu zer esan eta zer egiñ. Euskeria danona da eta danondako izan bihar da".

Horren harira, Korrika 18xak euskalduntzen eta alfabetatzen diharduten millaka eta millaka lagunak omendu nahi dattu: "Euskalakari izateko eus-

EIBARREN LEKUKUA HARTUKO DABENAK

- Uni BHI-ko Ikasle-Irakasliak
- Unibertsitatea EHU-ko ikasliak
- Hankamotxak Bertso Eskolia
- Legarreko Jai Batzordia
- Amañako Jai Batzordia
- Euskal Bizikleta Kirol Elkarte
- Itzio BHI
- Armerixa Eskolia
- Iosu, Pana eta Arrateren Lagunak
- Aek
- Mogel Isasi BHI
- Aspe (Pelotarixak)
- Herrira
- Etxerat
- LAB
- J. A Mogel Guraso Elkarte
- J.A. Mogel Ikastola
- Arrate Kultur Elkarte
- Klub Deportibua
- Euskadiko Kutxa
- Dendarien Elkarte
- Rugby Taldia
- Euskara Batzordia
- Udaleko bihargiñak
- Sostoa Abesbatza
- Ustekabe fanfarria
- E.H.E. / El Corte Inglés
- ...eta kitto! Euskara Elkarte
- Urkizu eskolako Guraso Elkarte
- EH Bildu
- Aralar
- Sortu
- EA
- EAJ/PNV
- EGI
- Ignacio Zuluaga Institutua
- Tekniker
- Ernai



Hillaren 24an amaittuko da Korrika Baionan.

keria ikasten eta praktikatzen diharduten guztiak. Biharretik urtenda euskera ikastera doiazen Aitor eta Nerea, loibak eskolan laga eta gero euskaltegira doiazen Karmen eta Jose, euskera ikasten hasi dan Yasmin, berbalagun talde batian dagan Felipe, barnetegira doian Ximun, Gau Eskolan diharduan Elisabete, Osvaldo, Ane...".

Betiko lez, Korrikaren amariarekin batera jaialdixa egingo da: hillaren 24n Baionan ospatuko da jaialdixa eta bertara jua nahi dabeneandako autobusa antolatu dabe (09.00etan Ego-Gaiñetik urtengo da).

Sare sozialetan eta mugikorrian

Korrika 18 jarraitzeko hamai-ka aukera eskintzen deskue antolatzailliak. Ohikueri (www.



MAIALEN BELAUSTEGI (Korrikan argazkilari)

"Alde bixak ikustia emozionantia izango da"

Korrikan lehenago be parte hartu izan dau Maialenek. Eta biharragaittik zeñ erretratuak etartzeko plazer hutsagaittik hamaika argazki etara dittu be. Datorren eguaztenian, baiña, gauza bixak uztartuko dittu, Korrika 18-xak Eibar, Soraluze eta Elgoibar ziharkatzian furgoneta gaiñetik erretratuak etaritzen jardungo dabelako.

- Nolatan jardungo dozu Korrikako erretratuak etaritzen?

Neuk proposau netsen antolatzaillieri, esperientzia hori probatzeko gogo haundixa nekalako. Izan be, Eibarko AEK euskaltegixan eskolak emoten dittut eta aurreko ediziñua be gertu-gertutik bizitzeko aukeria euki neban.

- Eguna zelakua izan leikian pentsau dozu?

Ba aurreko ediziñuan Soraluzen lekukua hartu neban eta, egixa esateko, giro berezixa egoten da. Furgoneta barruan juaten diranak mordua animatzen dittue korrikalarixak, gaiñera alkarte eta bestelakuen izenak-eta eukitzen dittue eta animuak personalizauak izaten dira. Eta furgoneta barruan be euren arteko girua oso politta dala pentsatzen dot. Horregaittik, Korrikaren alde bixak ikusi eta bizitzia emozionantia izango zala pentsau neban eta holan animau nintzan.

Korrika berezixa biziko dau aurten Belaustegik.

- Zer begittantzen jatzu Korrika, ekitaldi moduan?

Begittantzen jata oso gauza gitxik lortzen dabela holako giro, parte-hartze eta indarra sortzia. Danendako ekitaldixa da, bakotxak nahi daben moduan parte-hartzekua. Ez dakitt zergaittik, izan leike antxixiketan jardutia zeozer fisikua dalako-edo, baiña Korrikako girua arnasten juaten dala pentsatzen dot. Korrikak mogimendua adierazten dau, gure hizkuntza mogitzen dan moduan, bizi-bizirik dagan seiñale.

korrika.org, Flickr...) barri baztuk gehittu detsez, gaur egunian sare sozialak eta "smartphone" modura ezagutzen dittugun telefono mugikorrek erakartzen daben erabiltzaillie kopuruaren garrantzixaz oharuta. Holan, Facebook-en (<https://www.facebook.com/aek.euskalakari>) eta Twitterren (@#korrika) Korrikari jarraipena egitteko aukeria daka nahi dabena. Eta hórrekin batera Korrikarendako bereziki sortutako mugikorrerako aplikaziñuak

be eskuragarri dagoz: Androiderako Google Play-n eta Iphonerako, barriz, App Storen. Aplikaziñuari esker, bestiak beste, Korrikaren ibilbidia, momentura arte egindako kilometruak, lasterketa helmugaratzeko falta diranak... zuzenian jarraitu leikez eta webgunerako loturak, jokua eta beste hainbat esku-eskura eruateko aukeria eukiko dau nahi dabena.

Bestalde, EITB-k jarraipen berezixa egingo detse Korrika-

ri eta bere inguruan sortzen diran beste guztieri eta horretarako Korrikari eskindutako gunia sortu dau. Eta EiTb Nahieran-ek Korrikaren inguruan emititutako saiua atzera be ikusteko aukeria emongo dau. Eta ETB3k egunero gertutik jarraituko detsa Korrikari, saio berezixekin: Tabakalera eta EHUrekin alkarlanian orotariko kontakizun Transmedia izango dau Korrikak: bideojokuak, bideo klipak, interaktibuak, dokumentalak...



JAIME IBARRA BEASKOA "JYMMY"

I. urteurrena (2012-III-16)

Bere aldeko meza ospatuko da martxoaren 17an (domeka), 12.00etan, Karmeldarren parrokan.



Uni-Eibar Ermuak antolatutako Uni Encounter jardunaldiak gaur hasiko dira, 19.00etan Portalean eskainiko duten hitzaldiarekin. Aurtengo egitarauaren ardatza informatikako "piratak" edo hackerrak osatuko dute eta gaurko saioan horietako bat ezagutzeko aukera izango da. Bartzelonan bizi den Resen Elbereth (Dani Sosa) gazteak 16 urte besterik ez dauzka, baina Uni Eibar-Ermuaren webgunea hackeatu zuen aurreko neguan eta hori nola lortu zuen azaltzeko gonbidatu dute.

- Gaurko saioko egitaraua irakurtzean zu "hacker" modura aurkezten zaituzte. Nola ailegatu zara horretara?

Hamar urte nituela asko aspertzen nintzen. Ordenagailuan asko gustatzen zitzaidan joko bat aurkitu nuen eta sarritan jarduten nuen, baina Messenger bitartez birus batek kutsatutako argazkia jaso eta nire kontaktuak eta beste gauza asko galdu nituen. Amorratuta, horrelako zerbait egiteko arrazoi bila hasi nintzen eta horrela hasi zen dena. Programatzen hasi nintzen, praktikatzen... eta gaur egun internet bidez nik garatutako softwareen salmentari esker egunero 30/40 euro irabazten ditut.

- Zuri grina piztu zizun galdera bera egingo dizut: zergatik sortzen dituzte birusak?

Asmo nagusia ahalik eta ordenagailu gehienetara sartzea da, bertako datu erabilgarriak (txartelen datuak...) eskuratzeko. Datuak beste batzuei saltzen dizkiete sarritan, biktima bakoitzeko 20 zentimo ordainduz.

- Batzuentzat hackerrak gorrotagarriak zarete, baina beste asko bila ere joaten zataizkizue...


Azken batean, hackerra informatika ezagutza handiak dauzkan pertsona da. Dakiena ez du zertan kalterako erabili behar. Nik neuk beste bideari jarraitzea erabaki dut; nahiago dut hori lapurtzen ibiltzea baino.

- Hackerrek non ikasten duzue?

Interneten, Google, foro eta bestelakoetan. Ni erabat autodidakta naiz, gaur egun hiru hizkuntzatan programatzen dakit eta ikasten jarraitzeko asmoa daukat.

- Webguneak erasotzea erraza da? Babes txikia dago, oro har ulertuta?

Arazoa ez da horrenbeste babes barik egotea, baina hainbat faktorek gune bat erasotzea errazten dute. Edozein webgune eguneratzeari lagaz gero, zuzenean erasoan aurrean gero eta babes handiagoa galtzen joango da.



Resen Elbereth
(HACKERRA)

"Informatikaz asko dakiena naiz, ez besterik"



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON
M O D A

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



Bizitzarako...



... ELKARTRUKE ABERASGARRIA

ELKARTRUKE PROGRAMARI JARRAITUTA, lehenengo Alemaniako ikasleak hartu zituzten eibartarrek. Balingen Gimnasium-eko ikasleak, betiko moduan, zapatu batean ailegatu ziren Eibarrera eta Institutuko gazteak harrera egiteko gertu aurkitu zituzten. Ikasleek eurek diotenez, "alde aurretik adostutako dei katea martxan jarri eta institutoko ikasle guztiak jakinarenean ipini genituen. Bost egunez familiarakoak izango genituen alemanak ailegatzear zeuden. Matsariara abiatu eta bertan itxaron genien, lagunak eta familiakoekin. Eta, halako batean, hemen zegoen 18 ordu lehenago Balingenetik irteerako autobusa. Bikoteak osatu, elkarren arteko aurkezpenak egin eta zuzenean Institutura jo-

an ginen denak elkarrekin. Zuzendariaren eta Alemaniatik etorritako irakasleen aurkezpenaren ondoren, euskal dantzekin ongiatorria eman eta piskolabisari ekin genion". Zapatua zenez, hemengo gazteek ohiko erritmoari eutsi eta Alemaniatik etorritako lagun berriak Elgoibar eta Eibarko "Saturday night" giroa ezagutzera eraman zituzten. Domekarako plan lasaiegoko aukeratu zuten: Durangoko bolatokia eman zuten arratsaldea.

Asteburua atzean lagata, astegunetako agenda bete-betea izaten dute gazteek, egun gutxitan Eibar eta inguruak ahalik eta gehien ezagutzeko asmoz etortzen baitira. Hori bai, eibartarrek klasera joaten jarraitu behar izaten dute eta ezin diete irteeretan lagundu. Lehenengo eta behin, baina, gure ohitura eta bestelako berri jasotzeko hiru orduko dokumentala ipintzen diete alemanei eta, ondoren, egunero egiten dituzten txangoetan tokiak bertatik bertara ezagutzen joaten dira: Zumaia, Donostia, Lekeitio, Gernika, Biarritz, Baiona,

Donibane Lohitzune, Bilbo... eta, konturatu orduko, barixakua eta asteburua ailegatzeko zaie urtero. Eta, horrekin batera, agur esateko ordua.

Hala ere, ez da izaten agur tristea, badakitelako aste batzuk igarota autobusak kontrako norabidea hartuko duela eta berri denak elkarrekin egongo direla, baina oraingoan Alemanian. Eibarko ikasleak otsailaren azken asteburuan ekin zioten Alemaniako bidetara, bertaraino ailegatzeko aukerarik izango ote zuten oso argi izan barik. Izan ere, Europa osoan elurra gogotik botatzen ziharduen eta errepideak nola egongo ziren ez zekiten. Baina arazo barik ailegatu ziren eta Eibarko planaren errepikapen modukoa hasi zen: harrera, aurkezpenak (oraingoan motzagoak, gazteak elkar ezagutzen zirelako), disko-teka eta parranda... eta Alemaniako hamaika txoko interesgarri ezagutzeko txangoak. Elurrak eta hotzak ez ziren atzera eta aurrera ibiltzeko gogorik kendu. Hori bai, Eibarrera bueltatu eta, bizpahiru lagun salbu, beste guztiak gaixotu ziren; baina horrek ez ziren larregi ardura, ondo baino hobeto ibili ziren eta.



EMILIO AZURMENDI AGIRRE

"Sagarbitza"

Eskerrik asko emon deskuzun guztiagaittik.

ZURE LOIBAK



Armeria Eskolaren 100 urteak liburu batean

Bihar zapatua aurkeztuko dute "Mendeurrena-Centenario 1912-2012" izenburuko liburua eskolan bertan, Ikasle Ohien batzarrean. Eskolaren sorreraren mendeurrenaren harira egindako liburuak 270 orrialde eta 500 argazkitik gora ditu eta 30 eurotan erosteko moduan ipini dute. Armeria Eskolako Fernando Sagastigutxia eta Iñaki Alberdik batutako agiri eta argazkiei laguntzen Rafa Zubia kazetariak idatzitako testuak dauzka lanak. Bestek beste, eskolaren 100 urteko

historian bertatik pasatutako pertsonaia esanguratsuak ageri dira: Ortega y Gasset filosofoa (1927an etorria), Patricio Echeverría enpresa-gizona (1947), Eduardo Chillida eskultorea (1978), Etxenike fisikoa (2001) eta beste asko. Horiekin batera eskolara bisitan joandako gobernu-buruak, ministroak, agintariak... eta, jakina, ikastetxeko zuzendari, ikasle edo irakasleak ere.

Liburuak hiru atal nagusi dauzka: "Ikastetxea atzo. Iragan bikaina. Eskolaren histo-



Armeria Eskolan 1967an egindako batzarren irudia.

ria 1912-2012. Bisita ospetsuak. Mendeurrena", "Ikastetxea gaur egun. Hezkuntza-zentro bizia. Ikastetxea" eta "Ikastetxea bihar. Etorkizune-

ko proiektua. Energiaren hezkuntza-zentro integratua sortzeko ekimena. Ikasleen Guraso Elkarte. Ikasle Ohien Elkarte".



Kanpaina zabaltzeko erabilitako kartela.

"Ni ere UEU" kanpaina martxan

Udako Euskal Unibertsitateak "Ni ere, UEU" kanpaina abiatu du, "erakundeak bizi duen garai gogor honetan, UEU ezagutzera eman eta proiektuarekiko atxikimenduak jasotzeko asmoz". Gogoratuko duzuen moduan, iaz Eusko Jaurlaritzak 1998. urteaz geroztik esleitzen zion diru-laguntza izenduna kendu zion UEUri eta horrek erakundea kinka larrian jarri zuen. Uda bitartean egingo den kanpaina toki garrantzitsua beteko dute sare sozialek eta hainbat aurpegi ezagun bertan ikusteko aukera izango da. Bestek beste Pedro Miguel Etxenike, Juan Mari Arzak, Ilaski Serrano, Kirmen Uribe eta Gorka Otxoak egin dute bat kanpainarekin. Lau bideoak osatuko dute kanpainaren bizkarrezurra, bestalde: "Bi-

deo horiek pixkanaka zabaltzen joango gara, hilero bideo bana, eta horien bitartez UEUren ikuspegi desberdinak ezagutzera eman nahi ditugu".

Arduradunen berbetan, "kanpaina bereziki sare sozialetara zuzenduta dago, bai egun duten indarrarengatik, bai daukaten zabalkunde ahalmenarengatik eta baita modu berezian jende gaztearengana ailegatu nahi dugulako ere". Jendea parte hartzera animatzeko, gainera, zozketa antolatu dute: Facebook-eko UEUren orrialdean zintzilikatutako bideoak partekatzen dituzten artean tableta zozketatuko dute. Twitter bidez ere UEUren proiektuaren berri ematen joango direla aurreratu dute, #NiereUEU hashtag-a erabilia.

Narrasa da "zatarrena"

Izaskun Bustinduk aurkeztutako "narrasak" irabazi du euskarazko berbarik zatarrena aukeratzeko Berba Lehiaketa. Irabazlea aukeratzeko orduan interneten jasotako botuak eta epai-mahaiaren iritzia kontuan hartu dituzte. Bestalde, zozketa bidezko saria Nuria Fernandez de Arroiaberi egokitu zaio (berak aurkeztutako berba "tronpoilo" izan da).



Txistularien kontzertua domekan

Domekan Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du udaletxeko arkupeetan 12.30etatik aurrera. Elena Pérezek zuzendutako emanaldian honakoak eskainiko dituzte: "Aufa!" (jota, J.I. Ansorena), "Katalintxorena" (arin-arin, J.I. Ansorena), "Adan eta Eva" (polka, J.I. Ansorena), "Rapsodia N°2" (Luis Aranburu), "Minuetoa" (E. Basurko), "Idazmakina" (L. Anderson, J. Aztiazaranen mold.) eta "Enarak" (J.I. Ansorena).



○ Euskararen inoizko corpusik handiena

Drain arteko euskararen corpusik handiena garatu du EHUko Euskara Institutuak. Guztira, 205 milioi hitz biltzen ditu eta, garatutako aurreko corpusean, Ereduko Prosa Gaur izenekoan, 25 milioi zituela jakinda, honako hau 40 aldiz handiagoa da. Pello Salaburu EHUko Euskara Institutuko zuzendariak dioenez, "oso sinplea, argia eta intuitiboa da; hau da, erabilerraza". Hitz bakoitzaren informazioa ematen du, eta baita haren aldaerak ere; aldaera bakoitzaren adibide guztiak kontsultatzeko modua ere ematen du. Kontsultarako: www.ehu.es/etc

○ Oinarrizko euskara maila aitortuz

Euskara maila aitortzeko beste bi egiaztagiriri eratu dituzte Eusko Jaurlaritzak, oinarrizko maila dutenei aitortpena egiteko. Drain arte euskarazko egiaztagiriri apalena BI mailakoa zen, HABEko lehen mailaren parekoa. Drain indarrean dauden mailak baino bi apalago zehaztu dituzte: A1 eta A2. Gutxieneko maila hori lortzeko asmoarekin, 9.200 ikaslek dihardute gaur egun euskaltegietan; hiru estudiantetik bat, beraz. Maila apala izanda ere, aitortpena egitea aurrerapausotzat jo dute Hizkuntza Politikako ordezkariak, "hizkuntz bizikidetzarako mesedetan".

euskararen txokoa

Logotipo eta eslogan lehiaketa

Eibar Kirol Elkartek urte bi barru bere sorreraren 75. urtemuga ospatuko du eta, ho-

rren harira, ospakizunerako logotipo eta eslogan lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi dutenek lanak maiatzaren 2ko 20.00etarako aurkeztu beharko dituzte, posta elektronikoz, honako helbidean: 1940-2015@sdeibar.com. Zalan-tzak eta bestelakoak argitzeko ere helbide horretara idatzi behar da. Saria 300 euro edo hurrengo denboraldi bietarako Tribuna Zentralerako abonua (594 euroko baliokoa) izango da. Informazio zabalagoa www.sdeibar.com webgunean eskuratu daiteke.



Kuba eta Venezuelari buruz berbetan

Korrika Kulturalaren eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen "Illunabarrian" programaren barruan, aurreko asteko eguenean hitzaldi interesgarria eman zuten Salvador González eta Lázaro Oramas Euskadi-Kuba elkartearen kideek Portalean. Hitzaldiari laguntzen, gainera, "Kubako emakumeak, iraultza bat beste baten barruan" erakusketa ipini zuten areto nagusiaren sarreran.



laburrak

AGIRI BERRIAK ARTXIBOAN

Udal Artxiboak 1568, 1594 eta 1593 urteetako hiru agiri esanguratsu berritu ditu: 1568ko noblezia- edo kaparetasun-auzi bat, Juan Martínez de Arrizabalagarena eta Juan eta Andrés haren semeena; Domenja de Arguianoren kontrako epaia (1594) umea bertan behera utzi edo abandonatzeagatik; eta 1593 eta 1594ko hainbat eskritura. Hiru dokumentuak Eibarko Eskribautza Funtzaren barruan daude.

EMAKUMEAK LIBURUTEGIAN

Martxoaren 8aren inguruan emakumeei eskainitako interesgunea ipini dute Juan San Martín liburutegiaren sarreran. Horrekin batera "Emakume bidaiariak" irakurketa prestatu dute. Gidan emakumeek idatzitako bidai-liburuak, emakume bidaiarien nobelak eta biografiak eta hainbat pelikulari buruzko berriak jaso dituzte.

ROAD SHOW

Heziketa biala nerabeekin lantzeko "Road Show" ikuskizuna eskainiko dute Coliseoan hilaren 19an, 11.30etatik aurrera. Orain dela hiru urte sortutako programaren helburua gazteak gidatzean alkohola edateak dakartzan arriskueta jabetzea da eta, abiatu zenetik, Euskadiko DBH eta batxilergoko 20.000 ikaslerengana ailegatu da.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
943 201095 fax: 943 202564

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Bertsoak, dantzak eta txangoa Kultur

Atzo Korrika kulturalaren barruan Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsoari eskainitako bertso-saioaren ondoren, bihar, zapatua, bertso bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen 14.30etan hasita. Eta martxoak agurtuta, apirilera arte, bertso bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen 14.30etan hasita. Eta martxoak agurtuta, apirilera arte, bertso bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen 14.30etan hasita. Eta martxoak agurtuta, apirilera arte, bertso bazkaria egingo da Arrate Kultur Elkartearen 14.30etan hasita.

Ikastaroak 12 euro balio du Kultuko bazkideentzat (15 euro bestentzat) eta izena emateko elkartearen bulegoetara joan, 943-202299 telefono zenbakira deitu (martitzen eta eguenetan, 16.00etatik 20.00etara) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Eta apirilaren 27an Oiartzunera txango kulturala egingo dute, besteak beste meatze gunea eta Herri Musikaren Txokoa ezagutzera joateko.



Maialen Belaustegik irabazi du Topalekuko lehiaketa

Aurreko barixakuan eman zuten ezagutzera Arrate Kultur Elkarteak Emakumearen Egunaren harira antolatutako I. Lan Artistikoen Lehiaketako irabazlearen izena: Maialen Belaustegi eibartar gaztearen "Amorrúa, barruko indarra" grabatuak eskuratu du 200 euroko saria, epai-mahaikoek hala erabakita. Saria emateko

ekitaldia lehiaketara aurkeztutako artelanen erakusketaren inaugurazioarekin batera izan zen Topalekuan. Saritutako lana eta beste guztiak martxoaren 24ra arte egongo dira ikusgai, ohiko ordutegian: astelehenean barixakura 19.00etatik 21.00etara eta asteburu eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Jardunaldia k Antzerki



Martxoak 15
barixakua
20.30
Coliseoan

Yllana
FIDEL FERNANDEZ
JUAN FCO. RAMOS
ANTONIO PAGUDO

"¡Muuu! 2"

Komediaren kontzientzia, eritimoaren zentzua, soinuaren erabilera pertsonaia bat gehiago balitza, beraien estilo zuzena, jarrera lotsa-gabea ikuslearen aurrean, pertsonaien konposizioa... Ikuskizuna, azken finean. Arrakastasua, gainera. 20 urteko esperientziarekin.



Martxoak 16
zapatua
20.30
Unibertsitatean

Teatro Estudio
JOSE LUIS DE TORRES
KARMELE ALZA
ION SAGARZAZU

"Azken lerroko mutila"

Testu interesgarri bezain kezkarri honetan, irakaskuntzaren munduari buruzko hausnarketa sakona egiten da; bereziki ikasle eta irakasleen arteko harremanak aztertzeaz batera. Eszena bakoitzak irudimenari ate ireki bat laga eta aukera ugari ematen dio.



Martxoak 18
astelehena
20.30
Coliseoan

Ron Lalá
JUAN CAÑAS
IÑIGO ETXEBARRIA
MIGUEL MAGDALENA

"Urrezko Mendea, Oraingo Mendea"

Tradizioaren konplexu gabeko begirada modernoa, ikuskizun "irakia", zuzena, burleskoa eta dinamikoa; baina, era berean, landua eta herrikoa. Barrea eragin, pentsarazi eta bertso antzerkiak, zuzeneko musikaz eta aktoreen lotsagabekeriarekin gozatzeko bilduma.



Martxoak 20/21
eguztana/eguna
20.30
Coliseoan

Teatro Español
JUAN DIEGO BOTTO
ASTRID JONES

"Mundu honetako zati ikustezin bat"

Emigrazioa eta erbesteak lantzen da Juan Diego Bottok berak propio idatzi dituen bost bakarrizketekin osatutako ikuskizunean. Gai korapilotsu bezain larria tratatzeko, paternalismo eta topikoetatik urruntzen da egilea, egiazko gertaeretan oinarrituta beti ere.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ALAIA, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Zenbat, eh? Ondo pasau eta laztan handi bat.



Zorionak, IRATI, eguaztenian sei urte egin zenduazten-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, ARRATE, domekan 11 urte egingo dozuzelako. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, PELLO, atzo lehelengo urtia bete zenuan-eta. Patxo handi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, bederatzigarren urtebetetzian! Muxu pillua mutil haundixarentzako.



Zorionak, CHARO, eguaztenian urtiak egin zenduazten-eta. Senarra, semia, aitta eta amaren partez.



Zorionak, JONE, atzo sei urte bete zenuazten-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, DEISY JULIANA M. Franco, gaur 11 urte egingo dozuz-eta. Zeiñ harro dagan famelixa zutaz, printzesa!



Zorionak, LUR, hillaren 11n lau urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, astelehenian urtebete egin zenuduan-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN, datorren eguenian lau urte beteko dozuz-eta. Laztan handi bat aitaxo, amatxo eta lbar-en partez.



Zorionak, MIKEL, gaur zazpi urte egiten dozuz-eta. Zure arreba Paula, amatxo eta aitaxoren partez.



Ongi etorri, UNAI Cepeda Osinaga, martxoaren 5ian gure artera etorri zifialako. Zorionak Maddi eta Dioni gurasueri.



MARTXEL jaixo da!!! Txokolatezko muxu bat INHAR zure anaixaren partez.



Ongi etorrixa hillaren 5ian jaixotako MARTXEL Espilla Bilbaori. Famelixa guztiaren partez.



PAULA eta MARKEL. Zorionak, bikote, zuen bederatzigarren urtebetetzian. Muxu asko famelixa guztiaren eta lagunen partez. Ondo pasa!



Aurreko domekan gure printzesa LOREAK sei urte egin zittuan eta datorren martitzenian gure errege GALDER-ek bi egingo ditte. Zorionak bixori famelixaren partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45, 22.30
17an: 17.00, 20.00
18an: 20.30

"Las ventajas de ser..."

Zuzendaria: Stephen Citbosky



(2 ARETOAN)

15an: 22.30
16an: 17.00, 19.45, 22.30
17an: 17.00, 20.00
18an: 20.30

"Gangster Squad"

Zuzendaria: Ruben Fleischer



(ANTZOKIAN)

16an: 19.45, 22.30
17an: 20.00

"Hermosas criaturas"

Zuzendaria: R. LaGravenese



(ANTZOKIAN)

16an: 17.00
17an: 17.00

"Un mundo de fantasía" 3D

Zuzendaria: Sam Raimi



BARIXAKUA 15

UNI-ENCOUNTER

18.00. "Yes, we hack" jardunaldiaren aurkezpena eta hitzaldia: "El día que nos hackearon". Gorka Guenaga (Uni Eibar-Ermua) eta Reasen Elbereth (hackerra). Portalean.

HITZALDIA

18.30. "Dakar-en mundua ezagutu ezazu", Fausto Mota motorzalearen eskutik. El Corte Inglés-ean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "¡Muuu!" 2 (Yllana). Hezkuntza Esparruan.

MONOLOGOA

23.30. "Cualquier pasado fue mejor" monologoa, Alex R-ren eskutik. Akara tabernan.

ZAPATUA 16

AZOKA

09.00. III. Lora eta Landare Azoka. Urkizuko parkean.

BATZARRA

10.00. Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteko urteko batzarra. Armeria Eskolan.

BERTSO-BAZKARIA

14.30. Bertso-bazkaria. Kulturalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "El chico de la última fila" (Teatro Estudio de San Sebastian). Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

23.00. Rock in Ez-Dok: Gallinero All Stars. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 17

TXIRRINDULARITZA

10.30. XXXIV. Abascal Memorialaren irteera (amaiera 11.40etan Urkizun).

KONTZERTUA

12.30. Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Udaletxeko arkupeetan.

ASTELEHENA 18

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

IKASTEN

16.00. Sendabelarren Foroaren ikastaroa. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Siglo de Oro, Siglo de Ahora" (Ron Lalá). Coliseoan.

MARTITZENA 19

IKASTEN

10.00. "De la comedia del arte a la escena contemporánea. La tradición de las máscaras" hitzaldia, Virginia Imazen eskutik. Aulas Kutxak-ek antolatuta. Armeria Eskolan.

IKUSKIZUNA

11.30. "Road Show" heziketa bialerako ikuskizuna. Coliseoan.

UNI-ENCOUNTER

17.00. "Yes, we hack". "Vienen los Drones!", Svet Ivanchev-en eskutik.
18.30. "Birtualizazioa: egoera eta erronkak", Mikel Olasagastiren eskutik. Uni-Eibar Ermua, Ongarai auzoan. Ermuan.

EGUAZTENA 20

IKASTEN

10.05. Mendi-ibilaldia: Olatz. Autobusaren irteera Untzagatik (Bidebarrietatik 10.08etan).

UNI-ENCOUNTER

12.30. "Yes, we hack". Webguneen ahulezietara sarrera, Pablo Garaizarren eskutik. Uni-Eibar Ermua, Ongarai auzoan. Ermuan.

GURASOAK MARTXAN

15.00. "Propuestas para fortalecer la autoestima" hitzaldia. La Salle Azitainen.

KORRIKA

15.15. Korrika Txikia. Irteera Iasako La Salle ikastetxe paretik. Amaiera Eibarko Bizikleta Plazan.
17.30. Korrikari ongi etorria emateko musika kalean.
18.00. Korrika ailegatuko da, Ermutik (Ilekukoa Unibertsitate Laboralaren parean).

HITZALDIA

19.00. "Querido suelo pélvico" hitzaldia, Miren Aranburu Eibarko Medikuntza Zentruko fisioterapeutaren eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Un trozo invisible de este mundo" (Teatro Español. Cristina Rota). Coliseoan.

EGUENA 21

IKASTEN

10.00. "Macedonia, El reino de Alejandro Magno y Viena 1900" hitzaldia, M^a Jose Noainen eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

11.30. Bideokonferentzia: "La presidencia de Barack Obama: significado simbólico y real", Vilja Huldin-en eskutik. EUITIn (Unin).

UNI-ENCOUNTER

12.30. "Yes, we hack". "GPGPU: Txartel grafikoa erabiliz programatu", Mikel Iturberen eskutik. Uni-Eibar Ermua, Ongarai auzoan. Ermuan.

ODOLA ATERATZEA

18.30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulategian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Un trozo invisible de este mundo" (Teatro Español. Cristina Rota). Coliseoan.

HOROSKOPOA

ARIES

Politikeriak han eta hemen: edonon daude-eta! Ez zara zu ere horrelako ustelkerietan nahastuta ibiliko, ezta?

TAURUS

Aste Santurako prest? Egun bikainak pasatuko dituzu, baina ez zaituz urrutiegia joan: norbaitek zure beharra izango du.

GEMINI

Zure familiakide bati huts egin badiozu, heldu da barkamena eskatzeko ordua. Gaizki sentitu aurretik, esan barkatzeko.

CANCER

Bainujantzi berria estreinatzeko irrikitan zaude. Ez zaituz oraindik itsasoan sartu, bihotzkeoak emango dizu-eta. Hotz dago.

LEO

Estresatuta? Nazkatuta? Aurki izango duzu deskonektatzeko aukera. Pilak kargatu eta udara arte lasaitu zaituz.

VIRGO

Nola pentsatzen duzu Aste Santuan hemendik alde egitea dirurik ez baduzu? Hurrengo baterako laga beharko duzu.

LIBRA

Armairua berrituz beharko zenuke. Zure arropa orain dela bi denboraldikoa da. Irudia zaindu ezean, desfasatuta zaude.

SCORPIUS

Filme batek markatuko du zure astea. Hura ikustean, gauza askotan pentsatuko duzu. Ondo aukeratu beharko duzu.

SAGITTARIUS

Maita duzun pertsonarekin une ederrak biziko dituzu. Zuen bakardadean, une horiek ahaztezinak bihurtuko dira.

CAPRICORNIUS

Bizitza ez da dena zoriona; momentu txarrak ere bizi behar dira. Holako bat iritsi zaizu. Hurbilekoei laguntza eskatu.

AQUARIUS

Udaberria heltzeaz eta orain hasten da hotza berrira? Eguraldia zoro-zoro eta zu oraindik zoroago. Zurea gehiegizkoa da.

PISCIS

Ezin duzu zure burua zapaltzen laga. Aurka egiten dizutenei aurre egiteko ordua da. "Hemen nago" esan behingoz.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Martxoaren 15era arte

XABIER ISASTI. Aquarela, pirograbatu eta egur-tailu erakusketa.
Untzaga Jubilatut Etxean.

✓ Martxoaren 24ra arte

ANA RIAÑO. "De realidades y ficciones".
Portalean.
EMAKUMEEN ARTELANAK.
Topalekuan.

✓ Martxoaren 31ra arte

JUAN ANTONIO PALACIOS. Argazkiak.
Portalea tabernan.
JUAN IGNACIO AIZPURUA. Argazkiak.
El Ambigú tabernan.
FAFIBA. Balear Uharteetako argazkilari elkartearen federazioko argazkiak.
Klub Deportiboan.

jaiotakoak

- Martxel Espilla Bilbao. 2013-III-5.
- Igotz Reimundez Elorza. 2013-III-5.
- Andoni Pedrosa Gomez. 2013-III-7.
- Markel Urkola Badiola. 2013-III-8.

hildakoak

- Jesus G^a-Abad Mtnez.-Alcocer. 90 urte. 2013-II-27.
- Juanito Arriola Gisasola. 83 urte. 2013-III-7.
- Juan Tomas Etura Larrañaga. 66 urte. 2013-III-10.
- Fca. Herminia Palma Guerra. 90 urte. 2013-III-11.
- M^a Carmen Zaldibar Saenz de Urturi. 62 urte. 2013-III-12.
- Juan Guerrero Roldán. 68 urte. 2013-III-13.
- Victor Apellaniz Etxebarria. 78 urte. 2013-III-13.
- Emilio Azurmendi Agirre. 77 urte. 2013-III-13.

farmaziak

✓ barixakua 15

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ zapatua 16

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

✓ domeka 17

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ astelehena 18

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ martitzena 19

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ eguaztena 20

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ eguena 21

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ barixakua 22

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatua: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatua: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatua: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatua: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatua eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatua: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatua: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

8			2			6
6	1		8		4	9
		3	9			
9	8				1	4
	5			6		
1	4				3	2
		8	7			
7	6		1		2	5
5			9			1

SUDOKUA

4	2	8	3	1	6	5	7	9
9	7	6	2	5	8	1	3	4
1	5	3	4	7	9	8	2	6
3	8	4	6	2	5	9	1	7
6	1	2	9	8	7	3	4	5
5	9	7	1	4	3	2	6	8
8	4	5	7	3	1	6	9	2
7	6	1	5	9	2	4	8	3
2	3	9	8	6	4	7	5	1

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Barrera kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailua. Berrituta. Eguzkitsua. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 659-605863.
- Pisia salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukera. Aldapa barik bizitzeko aukera ezinhobe. Tel. 646-680445.
- Pisia salgai J.A. Mogel kalean. 3 logela, balkoi-egongela eta sukalde. Ganbara handia. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 681-223138.

1.2. Errentan

- Etxea alokagai Deban hilabete guztietan (abuztua izan ezik), hilabetea edo astea. Garajea eta terrazarekin. Itsasora begira. Urgain jatetxearen gaineko azken pisua. Tel. 649-928961.
- Pisia behar da, 2 logelakoa, Eibar erdigunean. Tel. 657-125654.
- Logela behar da Eibarko erdialdean. Tel. 657-125654.
- Pisia errentan behar da Eibarren. Tel. 634-007292.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelarekin. Tel. 657-125654.
- Pisia eguzkitsua eta zabala alokagai Eibarren, bariantetik gertu. 3 logela, 2 bainu, sukalde-jangela, egongela eta terraza handia. Sartzeko moduan. Bista zoragarriak. Tel. 645-728317.
- Logela alokagai konpartitutako pisuan. Amañako dorreetan. Tel. 650-916914.
- Estreintzeko pisua alokagai Bidebarrieta kalean. Guztiz berrituta eta jantzia. 2 logela eta egongela handia. Tel. 652-764566.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke errentan Eibarren. Tel. 619-935095.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. 2 zenbakia, 1 atea. Tel. 629-886258.
- Garaje zabala, marra artekoa, alokagai Ego-Gain 12an. Tel. 680-824100.
- Garaje itxia alokagai Legarre/Arrate-Bide inguruan. Behean eta maniobratzeko erraza. Tel. 943-201294 eta 645-728317.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 626-197217.
- Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko 13.00tik 17.00etara. Tel. 618-875007.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-068439.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 671-742142.
- Neska eskaintzen da tabernak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-262868.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-911069.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 618-354218.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 657-125654.
- Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 699-232823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste lanetarako. Tel. 634-401768.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 632-054894.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia mendeko pertsonak zaintzen eta erreferentziak. Tel. 669-426820.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 628-014327.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-007292.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-341238.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan. Erizaintzan diplomatua. Tel. 699-569998.
- Gizona eskaintzen da nagusiak ospitalean zein etxean zaintzeko, eta baserriak garbitzeko. Tel. 688-812845.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, eraikuntzan jarduteko eta mudantzetan laguntzeko. Tel. 660-213652.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-077316.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 665-752585.
- Emakume euskalduna eskaintzen da asteburuetan emakumeak zaintzeko. Tel. 659-381601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 646-143287.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-279131.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 686-802342.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 632-700803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-784360.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 647-155908.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 625-895460. Carmen Maria.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-835824. Oneida.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 638-824278.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 632-054894.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeniaritza Industrialaren egiten diharduen ikasleak karrera bera egin duen irakaslea behar du klase partikularak hartzeko. Tel. 639-423673.

5.2. Eskaintzak

- Atzerriko hizkuntzan diplomatua LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Nagusiak mugitzeko garabi eta ohe artikulatu ortopedikoak salgai. 1.800 euro. Osagarri guztiekin. Tel. 94-4232377, 675-712737 eta 943-702654.
- Mugikortasun-garabia salgai. Tel. 658-710829.
- Bigarren eskuko Miele hozkailua eta Aspes garbigailua, eta Fagor ontzi-garbigailu berria salgai. 399 eurotan hirurak. Tel. 625-700365.

6.2. Eman

- Eibar Sahara Elkarteak mahaiak eta apalategiak behar ditu. Tel. 665-704137.

Zumaia

Etxebizitza berriak
preziorik onenean

Zumaiako Ardantzabiden
prezio mugatuko 32 etxebizitza
LIBRE etako bat nahi baduzu,
zoaz Udaletxera
eta izena eman.

Epea:

martxoaren 11tik
apirilaren 19ra.



TERRAZA HANDIAK

3 logelako etxeak
garaje eta trastelekudunak
234.278€ + bez



Zumalako Udala

943 31 68 68

www.sukia.com



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



ARDANTZABIDE

Argibide gehiago hemen:

www.ardantzabide.es

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Euskararen Transmisioa

III. MINTEGIA

Maiatzaren 7^{an}
(ASTEARTEA)
PORTALEA Kultur Etxean

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak
943-200918
normalizazioa@etakitto.com

EGUN OSOKO
EGITARAUA

.....
hizlariak

Soziolinguistika Klusterra

Jean Baptiste Coyos

Urtxintxa Eskola

Iñaki Pikabea

Paula Kasares

Ahotsak.com

Kike Amunarriz






EPOCA-GORO

San Juan, 5 - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA

BERRITU ZURE ETXEA ILLUSIOZ
6UK LAGUNDUKO DIZUGU



RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com